**<u>BATZAR OROKORRA</u>**
**EZOHIKO SAIOA**

2022ko urriaren 26an, arratsaldeko 16:00etan, Eibarren bildu dira, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen egoitzako bilera-aretoan, ezohiko ekitaldian. Hori horrela, bada, Batzar Orokorra egitatez eta eskubidez osatzen duten 17 kideetatik 10 bertaratu dira guztira.

Batzar Orokorra, Presidenteak aurrez egindako deialdiari erantzunez bildu da.

Hauxe da deialdian jasotako gai-zerrena:

1. *2022ko irailaren 28ko bilkuraren aktaren zirriborroa irakurtzea eta, bidezko bada, onartzea.*
2. *Funtsen Eskuragarritasunerako Plana dela eta, Presidentearen ebazpenaren berri ematea.*
3. *BADESA SAUri egiten zaizkion enkarguen tarifak aldatzeko proposamena, 2022ko ekitaldian, aurkeztutako txosten ekonomikoaren bidez justifikatu ondoren. Bidezkoa bada, onartzea.*
4. *Hiri hondakinei, edukiontziei eta kale garbiketari lotutako zerbitzu osagarrien eskaerak protokoloan jasotzeko erabaki proposamena. Bidezkoa bada, onartzea.*
5. *BADESA, SAUren LPZ aldatzeko proposamena. Bidezkoa bada, onartzea.*
6. *Langileak hautatzeko ondoko prozedurak –2022ko lan-eskaintza publikoari dagozkionak– arautzen dituzten deialdiak eta oinarriak onartzea, bidezkoa bada:*
   - *Kale garbiketa zerbitzuren arduraduna.*
   - *Kale garbiketa zerbitzuko peoi balioaniztuna.*
   - *Hiri hondakinen bilketa zerbitzuko gidari ofiziala.*
   - *Hiri hondakinen bilketa zerbitzuko langile espezialista (gaueko txanda).*
7. *Lurpeko edukiontziak instalatzeko egindako inbertsioa likidatzea dela eta, diru sarrerak eta kostuak udalen artean banatzeari buruzko akordioa aplikatzeko erabaki proposamena. Bidezkoa bada, onartzea.*
8. *Eskualdeko txakurtegiarekin zerikusia duten zerbitzuak direla eta, Zaldibarko Udalarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena onartzea, bidezkoa bada.*
9. *Hiri hondakinen eguneko/gaueko zerbitzuko arduradunaren gaueko lanaldiaren aldaketa dela eta, egutegia aldatzea (0257 zk. LPZn). Presidentea lanaldiaren eta ordainsarien aldaketa, hala badagokio, negoziatzeko eta onartzeko gaitzea.*
10. *Landako bilketari dagokionez, egutegia aldatzea (0245 zk. LPZn). Bidezkoa bada, onartzea.*
11. *Presidenteak diziplinazko kaleratzeari buruz eman duen*

**<u>JUNTA GENERAL</u>**
**SESIÓN EXTRAORDINARIA**

En el salón de sesiones de la sede de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en la ciudad de Eibar, siendo las 16:00 del día 26 de octubre de 2022, se reúnen, en sesión extraordinaria, un total de 10 de los/as 17 miembros, que, de hecho y de derecho, integran la Junta General.

La Junta General se celebra previa convocatoria realizada por el Presidente.

El orden del día de la convocatoria es el siguiente:

1. *Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión de fecha 28 de septiembre de 2022.*
2. *Dación de cuenta de la Resolución de Presidencia, de aprobación del Plan de Disponibilidad de Fondos.*
3. *Propuesta de modificación de tarifas de los encargos a BADESA, SAU, ejercicio 2022, justificado en informe económico aportado. Aprobación, si procede.*
4. *Propuesta de acuerdo para protocolar las solicitudes de servicios adicionales de R.U., contenedores y de L.V. Aprobación, si procede.*
5. *Propuesta de modificación de la RPT de BADESA, SAU. Aprobación, si procede.*
6. *Aprobación, si procede, de las convocatorias y bases reguladoras de los siguientes procedimientos de selección de personal, correspondientes a la OPE 2022:*
   - *Encargado del servicio de limpieza viaria.*
   - *Peón polivalente del servicio de limpieza viaria.*
   - *Oficinal Conductor del servicio de recogida de residuos urbanos.*
   - *Operario Especialista del servicio de recogida de residuos urbanos (nocturno).*
7. *Propuesta de acuerdo, de aplicación del acuerdo relativo al reparto de ingresos y costes entre los ayuntamientos, en relación con la inversión liquidada en contenedores soterrados. Aprobación, si procede.*
8. *Aprobación, si procede, del convenio de colaboración con el ayuntamiento de Zaldibar, en relación con prestaciones relacionadas con la perrera comarcal.*
9. *Modificación de calendario, cambio a jornada de noche del Encargado R.U (diurno/nocturno) (núm. 0257 RPT). Habilitación al Presidente para su negociación y aprobación, si procediese, del cambio de jornada y de las retribuciones que se devenguen.*
10. *Modificación de calendario, recogida rural (núm. 0245 RPT). Aprobación, si procede.*
11. *Dación de cuenta de la Resolución de Presidencia de*

*ebazpenaren berri ematea.*

12. *Presidentearen erabakiak. Erabaki horiek laburtzen dituen zerrendaren berri ematea.*

Batzar Orokorra osatzen duten udalen ordezkarien bertaratuen zerrenda osatzen da. Bertaratu dira:

PRESIDENTEA
Iosu Arraiz Aramburu (Elgoibar).
PRESIDENTEORDEA
Rosa Mª Cid Seara (Ermua).
KIDEAK
Pedro Escribano Ruiz de la Torre (Eibar).
Alberto Albistegui Zamacola (Eibar).
Josu Mendicute Rodríguez (Eibar).
Beatriz Gamiz Mata (Ermua).
Jol Gisasola Garai (Ermua).
Iñigo Loyola Garate (Elgoibar).
Antxoka Elorza Altuna (Deba).
Abel Olaizola Alberdi (Soraluze).

IDAZKARIA
Raquel Olaizola Cortina.

Era berean, bilkuran izan da, bertara deiturik, Asier Lekube Arbaiza, BADESA, SAUko Gerentea berau.

Aldiz, ekitaldian ez dira izan, aurrez jakinarazita, honako jaun-andereak:

KIDEAK
Ana Telleria Echeverria (Eibar).
Ariana Nogales Babarro (Elgoibar).
Gilen García Boyra (Deba).
Ruben Andonegi Belaustegi (Mutriku).
Garoa Arizmendi Urkiza (Mutriku).
Iñaki Arregi Uria (Mendaro).
Igor Agirre Barrientos (Mallabia).

Bilera lehen deialdian egiteko beharrezko bertaratze-*quoruma* eman denez, presidente jaunak bilkurari hasiera eman, eta gai zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio.

**LEHENGO GAIA. 2022ko IRAILAREN 28ko BILEREN AKTEN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA**

*despido disciplinario.*

12. *Resoluciones de Presidencia. Dación de cuenta del listado resumen de las mismas.*

Se forma lista de asistentes de los/as representantes de los ayuntamientos, que forman parte de la Junta General. Asisten:

PRESIDENTE
Iosu Arraiz Aramburu (Elgoibar).
VICEPRESIDENTA
Rosa Mª Cid Seara (Ermua).
VOCALES
Pedro Escribano Ruiz de la Torre (Eibar).
Alberto Albistegui Zamacola (Eibar).
Josu Mendicute Rodríguez (Eibar).
Beatriz Gamiz Mata (Ermua).
Jol Gisasola Garai (Ermua).
Iñigo Loyola Garate (Elgoibar).
Antxoka Elorza Altuna (Deba).
Abel Olaizola Alberdi (Soraluze).

SECRETARIA
Raquel Olaizola Cortina.

Asiste, asimismo, convocado a la sesión, Asier Lekube Arbaiza, Gerente de BADESA, SAU.

No asisten al acto los/as siguientes señores/as, quienes excusan su asistencia:

VOCALES
Ana Telleria Echeverria (Eibar).
Ariana Nogales Babarro (Elgoibar).
Gilen García Boyra (Deba).
Ruben Andonegi Belaustegi (Mutriku).
Garoa Arizmendi Urkiza (Mutriku).
Iñaki Arregi Uria (Mendaro).
Igor Agirre Barrientos (Mallabia).

Dándose el *quórum* de asistencia exigible para su celebración en primera convocatoria, se abre la sesión por la Presidencia pasando a examinarse los asuntos incluidos en el orden del día.

**PUNTO PRIMERO. LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 28 DE SEPTIEMBRE DE 2022**

2022ko irailaren 28ko batzarren akten zirriborroa, bertaratuei galdetu zaie ea alegazioren bat egitea komenigarri ikusten ote duten.

Se somete a votación el borrador del acta de la sesión de fecha 28 de septiembre de 2022, y se pregunta a los/as señores/as asistentes si tienen que formular alguna alegación.

Ez da ezein eragozpen aurkeztu eta aipatu bilkuran izan ziren Batzar Nagusiko kide guztien adostasunarekin eta baiezko orokor bidez, honako ERABAKI hau hartu da.

No se presenta objeción alguna y con la conformidad de los/as miembros de la Junta General que asistieron a la mencionada sesión, por asentimiento general, se adopta el siguiente ACUERDO.

2022ko irailaren 28ko aurreko bilkuren akten zirriborroa onartzea, eta, hori betez, zirriborroa akta bihurtzea.

Aprobar el borrador del acta de la sesión de fecha 28 de septiembre de 2022, y en su virtud proceder a elevarlo a acta.

**BIGARREN GAIA. FUNTSEN ESKURAGARRITASUNERAKO PLANA DELA ETA, PRESIDENTEAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA**

**PUNTO SEGUNDO. DACIÓN DE CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA DE APROBACIÓN DEL PLAN DE DISPONIBILIDAD DE FONDOS**

Presidenteak urriaren 18an eman zuen 191. Ebazpenaren berri ematen da; horren bidez, onartu egiten da jarraian transkribatzen den Funtsen Eskuragarritasunerako Plana, baita ebazpenaren eranskina ere, aipatu Plana jasotzen duena; Batzarra jakitun geratu da.

Se procede a dar cuenta de la Resolución de Presidencia núm. 191, de 18 de octubre, de aprobación del Plan de Disponibilidad de Fondos, que a continuación se transcribe, y del anexo a la misma, que contiene el citado Plan, dándose la Junta por enterada.

*Ikusi da Funtsak Erabiltzeko Plana egin behar dela, Toki Erakunde honek bere Diruzaintza planifika dezan, betebeharrak puntualtasunez ordaintzeko moduko likidezia bermatzen duten tresna egokiak eduki ditzan eta finantza baliabideen erabilera optimiza dezan.*

*Vista la necesidad de elaborar un Plan de Disposición de Fondos con la finalidad de permitir a esta Entidad Local planificar su Tesorería y disponer de instrumentos adecuados que garanticen la liquidez suficiente para el puntual pago de las obligaciones y optimice el empleo de los recursos financieros.*

*Kontuan izanik indarrean dagoen araudiak Funtsak Erabiltzeko Plan bat formulatzeko betebeharra ezartzen duela, Erakundearen funtsak ateratzea arautzen duten irizpideak ezartzeko, irizpide horiek arloko araudia bete beharko dutela eta –lehendabizi, zor publikoaren interesak eta kapitala eta, jarraian, langileen gastuak eta aurreko ekitaldietan egindako zorrak kitatzeko– kredituak ordaintzeko erabateko lehentasuna ezartzea helburu dutela ahaztu gabe.*

*Considerando que la normativa vigente establece la obligatoriedad de formular un Plan de Disposición de Fondos a fin de establecer unos criterios que determinen la salida de fondos de la Entidad, criterios que deberán ajustar a la normativa en esta materia y que se concretan principalmente en establecer la prioridad absoluta del pago de los créditos para satisfacer los intereses y capital de la deuda pública seguido, de los pagos de gastos de personal y de las obligaciones contraídas en ejercicio anteriores.*

*Ikusi da 2022ko urriaren 13ko txostena, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Kontu Hartzailetza ataleko ekonomialariarena, aplikatzekoa den legediari eta Funtsak Erabiltzeko Plana onartzeko jarraitu beharreko prozedurari*

*Visto el Informe de fecha 13 de octubre de 2022, emitido por la Economista del área de Intervención de la Mancomunidad comarcal de Debabarrena, referente a la legislación aplicable y contenido y procedimiento a*

*eta edukiari buruzkoa.*

*Aurrekoa kontuan hartuta, honako hau EBATZI DA:*

*LEHENENGOA.- Onartu egiten da proposamen honi erantsita dagoen Funtsak Erabiltzeko Plana, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak egindako zorrak kitatzeko ordainketak agintzeari buruzko aurreikuspenak direla eta.*

*BIGARRENA.- Agindua ematen da onartutako Funtsak Erabiltzeko Plana Bizkaiko eta Gipuzkoako aldizkari ofizialetan argitaratzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 131. artikuluan ezarritakoa betez, Plana argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jar dadin eta indarrean jarrai dezan, aldatu, indargabetu edo plan berri bat onartzen ez bada.*
*Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/213 Legean aurreikusitakoa aplikatuz, Plan osoa Mankomunitatearen webgunean argitaratzeko agintzen da.*

*HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Sailera bidaliko da.*

**HIRUGARREN GAIA. BADESA SAURI EGITEN ZAIZKION ENKARGUEN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA, 2022KO EKITALDIAN, AURKEZTUTAKO TXOSTEN EKONOMIKOAREN BIDEZ JUSTIFIKATU ONDOREN. BIDEZKOA BADA, ONARTZEA**

BADESA SAUri egiteko enkarguen tarifak 2022ko ekitaldian aldatzeari buruzko erabaki proposamenaren berri emanda eta Batzarraren onespena eskatuta, bilkurara etorri diren Batzar Orokorreko kide guztiek (Presidenteak eta Cid Seara, Escribano Ruiz de la Torre, Albistegui Zamacola, Mendicute Rodríguez, Gámiz Mata, Gisasola Garai, Loyola Garate, Elorza Altuna eta Olaizola Alberdi jaun-andreek) aldeko botoa eman dute.

Horren ondorioz, Presidenteak onartutzat ematen du honako ERABAKI HAU:

*seguir para la aprobación del Plan de Disposición de Fondos.*

*Habida cuenta de lo anterior, SE RESUELVE:*

*PRIMERO.- Aprobar el Plan de Disposición de Fondos que se adjunta como Anexo a la presente propuesta, en relación con las previsiones sobre la ordenación de los pagos para hacer frente a las obligaciones contraídas por la Mancomunidad comarcal de Debabarrena.*

*SEGUNDO.- Ordenar la publicación del Plan de Disposición de Fondos aprobado en el Boletín Oficial de Bizkaia y Gipuzkoa, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 131 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, entrando en vigor al día siguiente de su publicación y manteniéndose su vigencia en tanto no sea modificado, derogado o aprobado un nuevo plan.*
*Asimismo, en aplicación de lo previsto en la Ley 19/213, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a información pública y buen gobierno, se ordena su publicación íntegra en la página web de la Mancomunidad.*

*TERCERO.- Dar traslado de la presente resolución al Departamento de Intervención y Tesorería.*

**PUNTO TERCERO. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE TARIFAS DE LOS ENCARGOS A BADESA, SAU, EJERCICIO 2022, JUSTIFICADO EN INFORME ECONÓMICO APORTADO. APROBACIÓN, SI PROCEDE**

Dada cuenta de la propuesta de acuerdo, de modificación de las tarifas de los encargos a BADESA, SAU, ejercicio 2022, y sometida a aprobación de la Junta, resulta aprobada con el voto favorable emitido por la unanimidad de miembros de la Junta General asistentes a la sesión, Sres./as.: Presidente, Cid Seara, Escribano Ruiz de la Torre, Albistegui Zamacola, Mendicute Rodríguez, Gámiz Mata, Gisasola Garai, Loyola Garate, Elorza Altuna y Olaizola Alberdi.

En su virtud, el Presidente declara aprobado el siguiente ACUERDO:

AURREKARIAK

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak 2021eko azaroaren 24an egin zuen Batzarrean onartu ziren mandatu bereziak, BADESA SAUk 2022ko ekitaldian egin beharrekoak, bitarteko propio pertsonifikatu gisa.

Mandatu horien bidez agindutako jarduketak BADESAk 2022ko ekitaldirako onartu zuen Aurrekontuan ezarritakoak dira. Jarduketa horiek finantzatzeko, 2021eko azaroaren 24ko Batzarrean, Mankomunitateak mandatuen tarifak onartu zituen, BADESA SAUk Mankomunitateari fakturatu behar dizkion zerbitzuak emateagatik.

BADESA SAU-RI AGINDUTAKO MANDATUAK GAUZATZEA 2022KO EKITALDIAN ZEHAR

TARIFA IGOERAREN JUSTIFIKAZIOA

BADESA SAUren Gastuen Aurrekontuaren gauzatze egoera (2022ko irailean) eta ekitaldiaren amaierako aurreikuspena aztertuta, aurreikusten da BADESA SAUren Aurrekontuan esleitutako kreditua ez dela nahikoa izango agindutako zerbitzuak emateko eta urtearen amaierara arte aurreikusita dagoen gastuari aurre egiteko.

Aurrekontuko kreditua nahikoa ez izateko arrazoi nagusia hiri hondakinen zerbitzuko ibilgailuen erregaiari, mantentzeari eta konponketei dagozkien idazpenetako gastua handitzea da. Ildo horretan, aipatu behar da erregaiaren gastua % 37,60 igo dela 2021eko urtarriletik irailera bitartean; amaierako aurreikuspenaren arabera, aurrekontuan ezarritakoarekin konparatuta, 148.931,22 euro gehiago gastatuko da hiri hondakinen zerbitzuko ibilgailuen erregaia erosteko, eta 17.641,71 euro gehiago, kale garbiketako zerbitzuko ibilgailuetarako erregaietan. Erregaiaren gastuaren bilakaera erantsi zaio dokumentu honi.

Zehaztu beharra dago erregaiaren prezioak izan zuen igoera nabarmena ezin zela aurretik jakin BADESA SAUri egin beharreko mandatuen tarifak onartu zirenean, hau da, 2021eko azaroan.

Era berean, ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko gastuak gora egin du, batetik, gaur egun daukagun % 10eko inflazioaren ondorioz prezioak igo direlako eta, bestetik, Zerbitzu Sailak konponketak egiteko kontratu berriak adjudikatzeko beharra justifikatzeko txostenean

ANTECEDENTES

En Junta de la Mancomunidad comarcal de Debabarrena celebrada el 24 de noviembre de 2021 se aprobaron los encargos específicos para su ejecución por parte de BADESA, SAU dentro del ejercicio 2022, en su condición de medio propio personificado.

Las actuaciones encomendadas a través de los encargos son los establecidos en el Presupuesto de Badesa aprobado para el ejercicio 2022. Para la financiación de estas actuaciones, la Mancomunidad aprobó en Junta del 24 de noviembre de 2021 las tarifas de los encargos por prestación de servicios a facturar por BADESA, SAU a la Mancomunidad.

EJECUCIÓN DE ENCARGOS A BADESA, S.A.U. DURANTE EL EJERCICIO 2022

JUSTIFICACIÓN DE INCREMENTO DE TARIFA

Analizado el estado de ejecución del Presupuesto de Gastos de BADESA, SAU a septiembre de 2022 y la previsión al cierre, se prevé que el crédito consignado en el Presupuesto de BADESA, SAU resulte insuficiente para poder llevar a cabo la prestación de servicios encomendada y atender el gasto previsto hasta final de año.

El motivo de la insuficiencia de crédito presupuestario se debe, principalmente, al incremento de gasto experimentado en las partidas de combustible de vehículos y mantenimiento y reparación de vehículos del servicio de R.U. En este sentido, cabe mencionar que el gasto en combustible se ha incrementado en un 37,60 % durante el período de enero a septiembre de 2021 y en la previsión al cierre, se estima se produzca un exceso respecto a lo presupuestado de 148.931,22 euros en combustible a suministrar a vehículos de R.U. y un exceso de 17.641,71 euros en combustible a suministrar a vehículos de L.V. Se adjunta la evolución del gasto en combustible como Anexo al presente documento.

Cabe precisar que el acusado incremento de precio habido en combustible resultaba impredecible a la fecha de aprobación de las tarifas de los encargos a BADESA, SAU en noviembre de 2021.

A su vez, el aumento de gasto en mantenimiento y reparación de vehículos se ha debido, además del incremento de precios derivado del actual contexto económico de inflación del orden del 10 %, a las siguientes causas indicadas en el Informe justificativo de

adierazi zituen honako arrazoi hauek direla medio (txostenaren arabera, arrazoi horiek ezin izan ziren aurreikusi aurreko lizitazioa egiterakoan):

- Lantegi propioan langileak falta dira, hartutako bajen eta baimenen ondorioz, ezin izan baitira mekanikari kualifikatuekin ordeztu.
- Instalazioak zaharkituta daude, ibilgailuen kopurua kontuan izanik.
- Mekanikari ordezkoek ez dute prestakuntza egokirik.
- Lanak kanporatzeko irizpidea aldatu da: ibilgailuak zerbitzuan erabiltzeko prest egotea lehenesten denez, areagotu egin da IVECO lantegian egin beharreko konponketen kopurua.

Horri dagokionez, Zerbitzu Saila aztertzen ari da nola konpon daitekeen lantegiko "kongestio" egoera eta, etorkizun hurbilean hartuko diren erabakien zain, konponketa lanak kanporatzeko gaur egungo erritmoari eustea aurreikusten da, ibilgailuak konpondu beharra ez baita aldatu, zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan eman nahi bada.

Aurrekoa kontuan hartuta, ondorioztatzen da handitu behar direla 2022ko ekitaldian BADESA SAUk egiteko aginduriko mandatuak egiteagatik ordaindu beharreko tarifak, aginduriko zerbitzuak emateko nahikoa finantzaketa izan dezan. Gastuen aurrekontua betearazteari buruzko txostenean (Kontu Hartzailetza ataleko ekonomialariak egindakoan), tarifa 67.000 euro igotzeko behar dela ondorioztatu da.

BADESA SAUk egiteko mandatuak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.1 artikuluan oinarrituta daude; horren arabera, botere adjudikatzaileek beren burua antolatu ahalko dute obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuen eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen berezko prestazioak zuzenean emateko beste pertsona juridiko batez baliatuta, hari aldez aurretik agindua emanda, baldin eta pertsona juridikoak beren bitarteko propio pertsonifikatuaren kalifikazio juridikoa badu.

Horrela, BADESA SAUren Estatutuetan ezarritakoa oinarri hartuta, azken hori Mankomunitatearen bitarteko propio pertsonifikatua da. Gainera, zerbitzua ematea bere xede

necesidad emitido por el Departamento de Servicios para adjudicación de nuevos contratos de reparación y que según se indica en el mismo fueron impredecibles en el momento de la licitación anterior:

- Falta de personal en taller propio debido a bajas y licencias que no han podido ser sustituidos por mecánicos cualificados.
- Instalaciones obsoletas en relación con la cantidad de vehículos.
- Falta de formación de los mecánicos sustitutos.
- Cambio de criterio en la externalización de los trabajos, priorizando la disponibilidad de los vehículos para el servicio, y en consecuencia, aumentando el número de reparaciones a realizar en el taller IVECO.

A este respecto, el Departamento de Servicios está analizando cómo descongestionar la actual saturación existente en el taller y a la espera de las decisiones que se vayan a adoptar en un futuro próximo, se prevé que se continue con el actual ritmo de externalización de trabajos de reparación puesto que sigue habiendo la misma necesidad de reparar los vehículos para poder dar el servicio en condiciones óptimas.

Habida cuenta de lo anterior, se concluye la necesidad de incrementar las tarifas a abonar por los encargos del ejercicio 2022 a BADESA, SAU, de forma que cuente con suficiente financiación para llevar a cabo la prestación de los servicios encomendados. En el Informe de ejecución del presupuesto de gastos emitido por la Economista del área de intervención, se ha cuantificado en 67.000 euros la necesidad de incremento de tarifa.

Los encargos a realizar por BADESA, SAU se sustentan en el art. 32.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público según la cual los poderes adjudicadores podrán organizarse ejecutando de manera directa prestaciones propias de contratos de servicios valiéndose de otra persona jurídica previo encargo a ésta, siempre y cuando la persona jurídica tenga la calificación jurídica de medio propio personificado respecto de ellos.

Así, en base a lo establecido en los Estatutos de BADESA, SAU ésta ostenta la condición de medio propio personificado de la Mancomunidad. Además, la

sozialetako bat da, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen eta BADESA SAUren arteko Esparru Hitzarmenean (2016ko apirilaren 20ko Batzarrean onartutakoan) ezarritako zerbitzu zerrendan agertzen da.

Azaldutakoa betez eta inguruabarrak kontuan izanik, Batzarrak honako ERABAKI HAU hartu du:

LEHENENGOA.- BADESA SAUk 2022ko ekitaldirako onartu zituen enkarguak direla eta ordaintzeko tarifa dela eta, 67.000 euro gehiago jarriko da, erregai horniduraren, ibilgailuen mantentze lanen eta konponketen prezioek gora egin dutelako.

BIGARRENA.- Onartu egiten da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak BADESA SAUri ordaindu behar dion kuota berria, erabakitako tarifaren igoera dela eta.

HIRUGARRENA.- Erabakia gardentasun atalean eta BADESA SAUren webgunean argitaratzeko agindua ematen da.

**LAUGARREN GAIA. HIRI HONDAKINEI, EDUKIONTZIEI ETA KALE GARBIKETARI LOTUTAKO ZERBITZU OSAGARRIEN ESKAERAK PROTOKOLOAN JASOTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA. BIDEZKOA BADA, ONARTZEA**

Presidenteak proposatzen du onar dadin askotariko edukiontziak ekitaldietan erabiltzeko eta garbiketa zerbitzu osagarriak jasotzeko aukera eskatzeko protokolo proposamena, horrelakoak maiz eskatzen baitituzte udalek, elkarteek, erakunde publikoek eta abar.

Proposamenarekin batera, formulario eredu bateratua aurkeztu da, materialaren eta garbiketa zerbitzu osagarrien eskaera horiek izapidetzeko.

Proposamen horren helburua eskaerak bideratzea eta antolatzea da, bide elektronikoz, posta elektronikoz edo Mankomunitatearen webgunearen sartuz egin daitezkeen izapideak arindu eta ordenatzeko.

prestación del servicio forma parte de su objeto social y de la cartera de servicios del Convenio Marco de encargo entre la Mancomunidad comarcal de Debabarrena y BADESA, SAU aprobado en Junta del 20 de abril de 2016.

En virtud de lo expuesto y considerando las circunstancias concurrentes, la Junta adopta el siguiente ACUERDO:

PRIMERO.- Incrementar la tarifa a abonar en concepto de encargos aprobados a BADESA, SAU para el ejercicio 2022 por importe de 67.000 euros, justificado por el incremento de precios experimentado en suministro de combustible y reparación y mantenimiento de vehículos.

SEGUNDO.- Aprobar nueva cuota a abonar a BADESA, SAU por parte de la Mancomunidad comarcal de Debabarrena por el incremento de tarifa acordado.

TERCERO.- Ordenar su publicación en transparencia y en la página web de BADESA, SAU.

**PUNTO CUARTO. PROPUESTA DE ACUERDO PARA PROTOCOLAR LAS SOLICITUDES DE SERVICIOS ADICIONALES DE R.U., CONTENEDORES Y DE L.V. APROBACIÓN, SI PROCEDE**

Propone el Presidente, la aprobación de la propuesta de protocolo para solicitar el uso y disposición, para eventos, de contenedores de diversto tipo y de servicios adicionales de limpieza, que se suelen pedir por los ayuntamientos, asociaciones, organismos públicos, etc.

Junto a la propuesta, se ha adjunto un modelo de formulario unificado que sirva para tramitar estas solicitudes de petición de material y de prestación de servicios adicionales de limpieza.

Es una propuesta cuya finalidad es encauzar las solicitudes y organizarlas para agilizar y ordenar su tramitación, que puede ser electrónica, mediante correo electrónico o acceso por la página web de la Mancomunidad.

Escribano Ruiz de la Torre jaunak, Eibarko Udalaren ordezkariak, gaia mahaigainean uzteko eskatzen du, bere iritziz, Batzarrak erabakia hartu aurretik, udaletako teknikariek eta Mankomunitatekoek gaia aztertu eta eztabaidatu behar dutelako, eskaera horiek bideratzeko modua dela eta, koordinaturik aritzeko. Eibarko Udalak mezu elektronikoak bidaltzen ditu zerbitzu osagarriak eskatzeko; beraz, eskaerak jasota geratzen dira jada. Bide egokia eta nahikoa dela uste du; beraz, formularioak betetzea ez litzateke beharrezkoa izango.

El Sr. Escribano Ruiz de la Torre, representante del ayuntamiento de Eibar, solicita que quede el asunto sobre la mesa, porque entiende que, previo a su acuerdo por la Junta, debe ser tratado y debatido entre los Técnicos de los ayuntamientos y los de la Mancomunidad, para que se coordinen sobre la forma de canalizar estas peticiones. El ayuntamiento de Eibar envía correos electrónicos para solicitar prestaciones adicionales, por lo que ya queda constancia de las peticiones. Considera que es un medio adecuado y suficiente, por lo que no sería necesario rellenar formularios.

Presidenteak erantzun du proposamenaren helburua eskaeren izapideak erraztea dela, baita jarduketa horien datu baseak sortzea ere, baimenak emateko prozesua arintzeko. Galdetu du ea adierazitako erreparoak materialaren eta zerbitzu osagarrien eskaerak antolatzeko proposamenari ala formularioari dagozkion. Bere iritziz, protokolo bat edukitzea aldeen mesederako da, horrelako egoeretan nola jokatu behar den jakiteko. Ados dago gaia teknikariekin landu behar dela, informazioa eta formulario eredua hobetzeko iradokizunak egin ditzaten.

El Presidente responde que el ánimo de esta propuesta es facilitar la tramitación de las solicitudes y, además, crear una base de datos con dichas actuaciones, para agilizar los permisos. Pregunta si las reservas manifestadas se refieren a la propuesta de organización de las solicitudes de petición de material y de servicios adicionales, o al formulario. Según su criterio es beneficioso para las partes disponer de un protocolo para conocer cómo actuar a este respecto. Está de acuerdo con gestionarlo con los Técnicos para que aporten sugerencias sobre la información y modelo del formulario para su mejora.

Ildo horretan, ulertzen du onartu egiten dela proposamenaren mamia, hau da, eskaerak antolatzeko eta bideratzeko modua izatea; formularioa zehaztu behar da ordainik.

En ese sentido, entiende que se aprueba el espíritu de la propuesta, como una forma de organizar y encauzar las peticiones, falta definir el formulario.

Batzarra zerbitzu eta material osagarrien eskaerak protokolo bidez antolatzeko proposamenarekin ados dagoela adierazten du eta gaitzen ditu Mankomunitateko teknikariak, formulario eredua udal teknikariekin ados dezaten. Egindakoaren berri Batzar honi emango zaio, ondorio horietarako tresna gisa erabiliko den formularioa onartze aldera.

La Junta manifiesta su conformidad con la propuesta de protocolar las peticiones de servicios adicionales de material y aprueba facultar a los Técnicos de la Mancomunidad para acordar con técnicos municipales, el modelo de formular. De lo actuado se dará cuenta a esta Junta, en orden a aprobar el formulado que sirva de instrumento a estos efectos.

**BOSTGARREN GAIA. BADESA, SAUREN LPZ ALDATZEKO PROPOSAMENA. BIDEZKOA BADA, ONARTZEA**

**PUNTO QUINTO. PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA RPT DE BADESA, SAU. APROBACIÓN, SI PROCEDE**

Gaiari buruzko erabaki proposamenaren berri emanda eta egintzan parte hartzen duten batzarkideek –17 kide eskubidedunetik 10ek– botoa eman dezaten aurkeztuta,

Dada cuenta de la propuesta de acuerdo emitida a este respecto, y sometida a votación de los/as miembros de la Junta asistentes al acto, 10 de los 17 miembros de

aho batez onartu da proposamena.

Horren ondorioz, Presidenteak onartutzat ematen du honako ERABAKI HAU:

2022ko urtarrilaren 26an, Batzar Orokorrak hiri hondakinen zerbitzuko gidari peoi balioaniztun lanpostua (poltsen biltzailea) sortzea erabaki zuen, hain zuzen, BADESA SAUko plantillan 0213 zk. duen lanpostua, Administrazio Publikoko 7. eta 9. taldeen bitarteko soldata maila duena (E).

Lanpostuari lotutako eginkizunak aztertu ondoren, bi akats ikusi ziren: batetik, C motako gidabaimena eta Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria eskatzea eta, bestetik, lanpostuaren balorazioa (eginkizunei dagokienez, 7. edo 9. mailakoa izatea), langile horrek ez baititu betetzen peoiaren lanpostuko eginkizunak (7. mailako soldataren truke), ezta kamioi handia gidatzeko C gidabaimena behar duen gidariaren lana ere (9. mailako soldata).

Hori dela eta, lanpostuaren ezaugarriak eta baldintzak egokitzeko, proposatzen da lanpostuaren izena aldatzea eta LPZn, 0213 zk. duen "gidari peoi balioaniztuna (poltsen biltzailea)" lanpostuaren ordez "hiri hondakinen zerbitzuko furgonetaren gidari balioaniztuna (poltsen biltzailea) jartzea; eskatzen diren gidabaimenei buruzko baldintzak aldatzea eta, C gidabaimena + Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria eskatu beharrean, B motako gidabaimena eskatzea; eta, azkenik, soldata maila aldatzea, hau da, 7./9. maila ezarri beharrean, 8. maila ezartzea, tamaina handikoak ez diren ibilgailuak gidatzea eskatzen duten beste lanpostu batzuekin bat etor dadin.

Erabaki honek ez ditu aldatzen lanpostuari lotutako eginkizunak eta atazak; horiek onartu ziren baldintzetan geratzen dira. Konfigurazioan antzemandako akatsa zuzentzea da helburua.

Azaldutakoa dela eta, Batzar Orokorrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aldatu egiten da BADESA SAUren 2022ko Lanpostu Zerrenda eta 2022ko enplegu eskaintza, hain zuzen, "gidari peoi balioaniztuna (poltsen biltzailea)" izeneko lanpostuari dagokionez, lanpostuaren konfigurazioa lanpostu horretarako onartutako

derecho, resulta aprobada por unanimidad.

En su virtud, el Presidente declara aprobado el siguiente ACUERDO:

Con fecha 26 de enero de 2022, la Junta General acordó la creación del puesto de Peón Conductor Polivalente – Recogedor de bolsas – del servicio de R.U., puesto núm. 0213 de la plantilla de BADESA, SAU, con un nivel de retribución que oscila entre el 7 y el 9, grupo A.P. (E).

Tras el análisis de las funciones asignadas a este puesto, se constata la existencia de un error en la exigencia de carnet C y del CAP y en la valoración del puesto de trabajo, niveles 7 o 9, en relación con sus funciones, por cuanto que no realiza funciones propias del puesto de Peón, retribuidas con un nivel 7, ni realiza funciones de Conductor de camión grande que requiera carnet C, retribuibles con un nivel 9.

Se propone por ello, para adaptar las características y requisitos del puesto, modificar su denominación y donde se establecía en la RPT, puesto núm. 0213, "Peón Conductor Polivalente (Recogedor de bolsas)"; establecerá "Conductor Polivalente de furgoneta R.U. (Recogedor de bolsas); modificar los requisitos relativos a los permisos de conducir exigibles y donde se exigía carnet C + CAP, se exigirá carnet B; y, por último, modificar su nivel de retribución y así, donde se establecían niveles 7/9, se establecerá nivel 8, en consonancia con la retribución de otros puestos de conducción de vehículos que no son de grandes dimensiones.

El presente acuerdo no representa una modificación de funciones y tareas propias del puesto, que se mantienen en las condiciones que fueron aprobadas. Su finalidad es subsanar el error detectado en su configuración.

Por lo expuesto, la Junta General ACUERDA:

PRIMERO.- Modificar la RPT de BADESA, SAU 2022 y la oferta de empleo 2022, en lo relativo al puesto de trabajo que figura con la denominación Peón Conductor Polivalente (Recogedor de bolsas), para adaptar la configuración del puesto a las funciones aprobadas para

eginkizunetara egokitzeko; ondorioz, antzemandako akatsak zuzendu eta ondoko konfigurazioa onartu beharko da:

el mismo, según lo cual, procedería subsanar las deficiencias detectadas y aprobar la siguiente configuración:

**LANPOSTUEN ZERRENDA**
**RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO**
**BADESA**
**2022**

| ZENA MINACIÓN | EGOERA SITUAC. | TIT. | TALDE GRUPO | NIVEL ASIMILABLE DE ARCEPAFE | BESTLK. OSAGARR. OTROS COMPLTOS. | DEDIKAZ BEREZIAGAT. OSAGARRIA COMPTO. DEDICACIÓN | NS SP | OHARRAK OBSERV. | H.E. P.L. Recomenda |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **lHko BILKETAREN ZERBITZUAK – SERVICIOS DE RECOGIDA DE R.U.** | | | | | | | | | |
| ırgonetako gidari ɔaniztuna n biltzailea nductor ralente de oneta RU cogedor ɔolsas | - | Eskola ziurtagiri Certificado de escolaridad Carnet B | A.P. (E ) | 8 | Gau+Nek.%30 Noct+Pen30% | | ZB RE | | 1 |

BIGARRENA.- Lanpostuaren erreferentzia eta baldintzak BADESA SAUren 2022ko enplegu eskaintzan aldatzea.

SEGUNDO.- Modificar la referencia y condiciones de este puesto en la Oferta de Empleo de BADESA, SAU 2022.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau gardentasun atalean eta Gipuzkoako eta Bizkaiko aldizkari ofizialetan argitaratuko da.

TERCERO.- Publicar el presente acuerdo en transparencia y en los Boletines Oficiales de Gipuzkoa y Bizkaia.

**SEIGARREN GAIA. LANGILEAK HAUTATZEKO ONDOKO PROZEDURAK –2022KO LAN-ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOZKIONAK– ARAUTZEN DITUZTEN DEIALDIAK ETA OINARRIAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA:**

- **KALE GARBIKETA ZERBITZUREN ARDURADUNA**
- **KALE GARBIKETA ZERBITZUKO PEOI BALIOANIZTUNA**
- **HIRI HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUKO GIDARI OFIZIALA**
- **HIRI HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUKO LANGILE ESPEZIALISTA (GAUEKO TXANDA)**

**PUNTO SEXTO. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS CONVOCATORIAS Y BASES REGULADORAS DE LOS SIGUIENTES PROCEDIMIENTOS DE SELECCIÓN DE PERSONAL, CORRESPONDIENTES A LA OPE 2022:**

- **ENCARGADO DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA**
- **PEÓN POLIVALENTE DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA**
- **OFICIAL CONDUCTOR DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS URBANOS**
- **OPERARIO ESPECIALISTA DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE RESIDUOS URBANOS (NOCTURNO)**

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Presidentearen proposamenari jarraiki Batzorde Nagusiak, bertaratutako

A propuesta del Presidente de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena; la Junta General, por

kideek aho batez onartuta, honako ERABAKI hau hartu du:

KALE GARBIKETA ZERBITZUREN ARDURADUNA

LEHENA.- Kale Garbiketa Zerbitzuren Arduraduna lanpostua kontratu mugagabearen bidez betetzeko, deialdia onartzea.
Lanpostu-Zerrendako 219. lanpostua.

BIGARRENA.- Deialdiaren oinarriak onartzea.

HIRUGARRENA.- Honako epaimahai kalifikatzaile hau izendatzea:

- Presidentea
  Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Ekonomista Espezialitatea, Kontuhartzailea.
- Kideak
  BADESA, SAUko Zerbitzuburua.
  Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Lan Osasuneko teknikaria.
  IVAPek izendatutako kidea.
- Idazkaria
  Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko funtzionarioa (Pertsonaleko Administraria).

LAUGARRENA.- Erabakia jendaurrean jartzea, oinarrietan adierazten den moduan.

